



LEHENDAKARITZA

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren
Idazkaritza Nagusia
Gazteria zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de Transición Social
y Agenda 2030
Dirección de Juventud

Emantzipa programa

2023ko martxoaren 21ean, Eusko Jaurlaritzak **Gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategia** onartu zuen. Estrategia horren helburua da 2030erako emantzipatzeko batez besteko adina 28 urterekin murriztea eta emantzipazio-tasa % 50eraino igotzea. Herri-helburua da, eta lehen mailako lehentasuna Eusko Jaurlaritzarentzat.

Estrategiaren V. **Proiektu Traktorearen** helburua **Emantzipa programa** abian jartzea zen.

2023ko abenduaren 26an, Gobernu Kontseiluak [191/2023 Dekretua](#) onartu zuen, abenduaren 26koa, Gazteen Emantzipaziorako Programa arautzen duena.

Ondoren, **Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkari Nagusiaren [2024ko otsailaren 13ko Ebazpenaren bidez](#)**, 2024ko deialdia onartu zen.

Emantzipa, 25 eta 29 urte bitarteko gazteei, biak barne, emantzipatzen laguntzeko diru-laguntza bat da.

Hilean **300 euro** ordaintzean datza, gehienez **24 hilabetez**, betiere gastu bat egiaztatzen bada (alokairua, hipoteka edo etxebizitza libre baten mailegu pertsonala).

Hauk dira laguntza jasotzeko **baldintzak**:

- 25-29 urte izan behar dituzu, biak barne.
- EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea, urtebete lehenagotik gutxienez, edo azken 10 urteetan 3 urtez jarraian erroldatuta egotea.
- Errentamendu-kontratu baten titularra izan behar duzu, banaka edo errentakide gisa, edo salerosketa-kontratu baten titularra, banaka edo jabekide gisa, kontratu horrek hileko ordainketa ekonomiko egiaztagarria badakar.
- Ezin zara ohiko etxebizitzaz bestelako etxebizitza baten jabe izan.
- Etxebizitzak laguntza eskatzen duzuenon ohiko egoitza iraunkorra izan behar du.
- Ezin duzu familia-loturarik izan etxebizitza alokatzen duen pertsonarekin (bigarren mailara arte).
- Alokairuaren, hipotekaren edo maileguaren zenbatekoa banku-transferentzia bidez, Bizum bidez... ordaindu behar duzu.

Gainera, **baldintza ekonomiko** hauek bete behar dira:

- Zerga-aitorpena banaka egiten baduzu: 3.000 eurotik gorako eta 28.000 eurotik beherako urteko diru-sarrerak.
- Baterako zerga-aitorpena egiten baduzu: 3.000 eurotik gorako eta 34.000 eurotik beherako urteko diru-sarrerak.

Era berean, ezin dute 75.000 eurotik gorako ondarrerik izan

Etxebizitza partekatzen bada, gehienez 3 pertsonari emango zaie prestazioa.

Eskabideak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 20tik azaroaren 29ra** bitartekoa izango da, biak barne.

Eskaera aurkezteko modurik errazena online egitea da, [esteka honetan](#) BakQ-rekin identifikazio elektronikoa eginez, baina [aurrez aurre](#) ere aurkez daiteke.

Baldintzei eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko informazio guztia aurki dezakezue www.euskadi.eus/emantzipa webgunean.

Kontsultei 945 015 591 telefonoaren bidez erantzungo zaie, edo emantzipa@euskadi.eus posta elektronikoaren bidez, edo [GAZ Emantzipaziorako zerbitzuaren](#) bidez.

Espero dugu Emantzipa Programa zabaltzen lagunduko diguzuela, eta laguntza eraginkorra izango dela gazteen emantzipazioa errazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 20a

Miren Saratxa De Isla



Gazteriako zuzendaria